Defendemos EUSKADI Zaindu

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Aitor Estebanen hitzaldia
Gasteiz. 2026.11.12

Gabon, Gasteiz. Gabon, Araba. Gabon, Euskadi.

Gaur kanpaina garrantzitsua hasten da. Ta geu gogoz eta indarrez gaude eta ederki dakigu nor garen, zer defendatzen dugun eta zertarako egon nahi dugun Madrilen datozen lau urteetan.

Madril oso urrun geratzen dela uste duten jendeak badaude. Han hartutako erabakiek Euskadiri gutxi eragiten diotela edo batere ez uste dutenak. Eta beraz, EAJk Madrilen talde parlamentario indartsu bat eukiteak ez duela garrantzirik izango bere eguneroko bizitzan uste dute. Eta oker egongo dira, Madrilek Euskadin egin daitezken politika asko baldintzatzen jarraitzen baitu.

Datozen asteetan, blokeez, gehiengoez, eta nor norekin egon dan Moncloara heltzeko eta antzerakoak entzungo ditugu. Behin eta berriro eremu horretara eraman nahiko gaituzte, hauteskunde hauek bloke gorri baten eta bloke urdin baten artean aukeratzea bakarrik balira bezala.

Guk beste erantzukizun bat dugu. Ez goaz Madrilera inoren laguntzaile edo morroiak izatera, Euskadi Madrilen protagonista izan daitela ziurtatzera baizik. Madrilek bere gehiengoak, akordioak eta arazoak izango ditu. Baina Euskadik baditu bere interesak, lehentasunak eta berezko ahotsa ere. Eta gu Euskal Taldea gara. Izen hori ez da kasualitatea. Zertarako gauden bertan argi erakusten du. Zer garen, zer egin dugun eta zer jarraitzen dugun egiten han erakusten du. Euskal Taldea gara gu!

Somos el Grupo Vasco porque nuestra referencia es Euskadi. Porque cuando se debate una ley, cuando se negocia un presupuesto, cuando está en juego una inversión o cuando hay que defender una competencia, nuestra primera pregunta es siempre la misma: ¿qué necesita Euskadi?, ¿qué es bueno para Euskadi?, ¿qué tenemos que conseguir para Euskadi?

Esa es nuestra forma de estar en Madrid. Con voz propia. Sin formar parte de ningún bloque. Sin tener que pedir permiso para defender nuestros intereses. Con capacidad para acordar cuando un acuerdo es bueno, para exigir cuando hay que exigir y para decir que no cuando toca decir que no.

No sabemos qué mayoría habrá después del 29 de noviembre. No sabemos qué acuerdos serán posibles ni cuánto durarán. Pero sí sabemos que el día 30 empezará el trabajo de verdad. Habrá presupuestos. Habrá leyes. Habrá inversiones. Habrá

decisiones sobre nuestra industria, sobre el empleo, las pensiones, las infraestructuras, la vivienda o nuestro autogobierno. Y ahí tiene que estar la voz de Euskadi. No prestada. No subordinada. La nuestra. ¡Eso es el Grupo Vasco!

Y para ese día 30 queremos plantear algo muy sencillo: una póliza para la casa vasca. Una garantía para Euskadi, pase lo que pase y gobierne quien gobierne Y esa póliza empieza por unas cláusulas muy claras. Principios que no dependen de quién gobierne, de ninguna mayoría ni de ninguna negociación.

PRIMERA CLÁUSULA: nuestro autogobierno no se toca. Es capacidad real para decidir aquí sobre nuestras cosas, gestionar nuestros recursos y construir nuestras propias políticas. Políticas que benefician a la gente: En educación, en sanidad, en empleo… Defendemos el Concierto Económico porque forma parte de nuestra singularidad y de nuestra capacidad para organizar este país. El concierto Económico es la herramienta para que Euskadi tenga dinero para sanidad, educación, bienestar social, infraestructuras, euskera o vivienda.

SEGUNDA CLÁUSULA: con Vox, nada. Tenemos un límite democrático claro. No es una posición que aparezca ahora porque haya elecciones. Es una posición conocida y mantenida. Pero como hemos hecho siempre, ni vamos a echarnos en brazos de nadie ni vamos a hablar desde el miedo. Ni alfombras rojas ni azules. Un seguro con cláusulas claras, conocidas, y sin letra pequeña.

No queremos construir una campaña diciendo que todo está amenazado o que Euskadi tiene que encerrarse a defenderse. Todo lo contrario. Euskadi tiene fuerza. Tiene industria, empresas, personas trabajadoras, conocimiento, instituciones y capacidad para avanzar. Tenemos experiencia, tenemos un país que funciona y tenemos capacidad política para hacernos valer. Y precisamente por eso queremos una voz fuerte. No para defendernos permanentemente de alguien, sino para avanzar. Para conseguir cosas. Para abrir oportunidades. Para que aquello que decidimos aquí tenga también fuerza allí donde se toman decisiones que nos afectan.

Eta hemen, Araban, badakigu zertaz hitz egiten dudan. Enpresa batek zailtasunak dituenean, garrantzitsua da nor mugitzen den lagundu ta konpontzeko. Inbertsio bat etorri edo joan daitekeenean, nork negoziatzen duen garrantzia dauka. Enplegu industriala jokoan dagoenean, garrantzitsua da nork duen mahai guztietan esertzeko gaitasuna.

Talgoaren kasua politika egiteko modu horren adibide ona da. Argi esango dut, bertatik bertara ezagutzen dudalako: EAJ Madrilen bultzatzeko eta negoziatzeko egon ez balitz, Talgo itxita legoke gaur egun, eta lanpostu asco galduko ziratekeen, familia askoren

kalterako. Mugitzea, negoziatzea, erakundeak inplikatzea eta Euskadiri lotutako industria, jarduera eta enplegua mantentzeko lan egitea. Hori izan eta izango da gure ardura. Hori eragina izatea da. Hori politika baliagarria da. Hori da ahots propioa izatea.

Eta logika horrek berak balio du ere Forondaz, gure azpiegiturez, Arabako industriaren beharrez edo lurralde honek hazten jarraitzeko behar dituen inbertsioez hitz egiten dugunean. Guzti hori egon da eta egongo da gure agendan eta gure eguneroko lanean. Gure lana Euskadi eta euskaldunen interesak defendatzea da, haien lehentasunak plazaratu eta emaitzak lortzea da. Eta hori pertsonen, euskaldunen eguneroko bizitzaz hitz egitea da. Izan ere, Euskadi defendatzea ez da soilik erakundeak defendatzea. Gazte batek etxebizitza bat aurki dezan eta bere bizi-proiektua berton garatu dezan lan egitea da. Gure enpresek inbertitu, lehiatu eta enplegua sortu ahal izateko lan egitea da. Langileak bere lanetik duintasunez bizi ahal izatea da. Segurtasuna eta bizikidetza da. Pentsioak, osasuna eta zainketak dira. Gure bizitzari eragiten dioten gaiei buruz hemen erabakitzeko gero ta gaitasun haundiagoa eukitea da.

Hori guztia Euskal Etxea duzue, guztion etxea, babestu nahi duguna, hain zuzen. Aste hauetan zarata handia egongo da, baina ez nahastu, haien helburu bakarra Monkloa da: PSOE Moncloan geratzeko borrokan dago; PP, Sánchez Moncloatik ateratzeko. Eta Bildu, Monkloako argazkian egoteko.

EAJ-PNV, euskal taldea, Euskadik behar duen ASEGURUA da. Gu Euskal Etxea babesten duen asegurua gara, orainaren eta etorkizunaren bermea. Eta Euskal Etxearen poliza horrek bi KLAUSULA ditu: gure autogobernuaren muga eta muga demokratikoa. Eta bost ESTALDURA ditu: zure bizi-kalitatea, zure lana, zure segurtasuna, zure ongizatea eta zure erabakiak bertotik hartzeko gaitasuna. Eta poliza bat baliarazteko, danok dakigunez, gaitasuna duen norbait behar da. horretarako dago euskal taldea: euskadiren izenean berme horiek defendatzeko eta exijitzeko.

Sabemos que durante estas semanas habrá mucho ruido. Habrá quien quiera convertir estas elecciones en un plebiscito sobre Sánchez y habrá quien quiera convertirlas en un plebiscito sobre Feijóo. Habrá una enorme pelea entre bloques. Una pelea solo por La Moncloa: el PSOE pelea por quedarse en La Moncloa. El PP, por entrar. EH Bildu, por colarse en la foto de la Moncloa. Y nosotros vamos a explicar otra cosa. Que Euskadi tiene intereses propios. Que Euskadi tiene una agenda propia. Y que Euskadi necesita una voz propia. Porque defender la democracia y defender Euskadi son perfectamente compatibles. Llegar a acuerdos y mantener nuestra independencia política también lo son. Influir y conservar nuestras propias prioridades también. Esa ha sido nuestra manera de hacer política durante muchos años. Acuerdos cuando sirven. firmeza cuando hace falta. resultados siempre que sea posible. y Euskadi como referencia.

El día 29 conoceremos el resultado. Pero a mí me interesa mucho el día 30. Quién estará allí cuando llegue una decisión complicada. Quién estará cuando haya que discutir, acordar y defender el Concierto y el Cupo. Quién estará cuando una empresa necesite una solución. Quién estará cuando haya que conseguir una inversión. Quién estará cuando haya que negociar una competencia. Quién estará cuando haya que decir que el pueblo vasco existe, que quiere seguir siendo y que quiere decidir por sí mismo. Quién estará cuando Euskadi se juegue algo.

Nosotros estaremos allí como lo que somos: el Grupo Vasco. La voz propia de Euskadi. El SEGURO de Euskadi. Con nuestras prioridades, con nuestros principios y con las manos libres para defenderlas. Porque pase lo que pase en Madrid, Euskadi necesita una voz propia, fuerte y libre. Una voz que no dependa de ningún bloque. Una voz que sepa acordar, exigir y defender lo nuestro cuando haga falta. Una voz capaz de hacer valer nuestra póliza: defender lo nuestro, acordar cuando sea bueno para Euskadi y exigir que lo acordado se cumpla.

Sabemos quién somos, sabemos de dónde venimos y sabemos para qué estamos. No somos el comodín de nadie. Estamos para defender Euskadi. Para hacerla avanzar. Para que su voz se escuche con fuerza allí donde se toman decisiones que nos afectan. Somos el Grupo Vasco. Somos la voz propia de Euskadi. Y ahí estaremos, con fuerza, con confianza y con Euskadi siempre como referencia. ¡Seguro!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi Askatuta!